

«Ez nuen arrazoi politikoengatik alde egin, familia laguntzeko baizik»

Ordu laurden berandu iritsi da zitara, baina egiari zor, ez gara gehiegi harritu. Azken egunetako euritearen ondoren, temperatura goxoa dago, baina fresko dagoela esan digu Waltaryk. Goxoa bezain freskoa du hitz jarioa, eta egiari zor, horrekin ere ez gara gehiegi harritu.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Euskal Herrian aski normala da haurra pilotan jokatzeko, baina Kuban?

Kubatar guztiek amaren sabeletik atera orduko batea eta pilota hartzen dituzte beisbolean jokatzeko. Gero datoz beste kirolak, lehenbizi beisbola da. Habanako haur guztiak ametsa da Industriales-eko kide izatea. Habanan Industrialesek Madrilen Real Madrilek edo Bartzelonan Barça bezalako pasioa sortzen du. Izugarria da. Ni ere ez nintzen salbuespena izan eta saiatu nintzen beisbolean nire tokia egiten, alferrik zela jabetu, eta nire ahaleginak trinketea zentratzea erabaki nuen arte.

Erremin puntu bat sumatzen dizut...

Ez nintzen punta-puntakoa baina txar-txarra ere ez. Aukera bat merezi nuela pentsatu izan dut beti, baina ez zidaten sekula eman. Jatorri pobreako bazara traba asko jartzen dizkizute, eta onenak baino hobea izan behar duzu, bestela jai daukazu.

Beisbolari zor diozu besagaineako postura berezi hori?

Kuban denok daukagu postura hori. Bate-tik, beisbolaren eragina handia delako gudan, eta bestetik, tenisekoaren oso antzeko pilotekin jokatzeko hasten garelako. Arras pilota saltariak dira, eta eroso jokatzekotan, derrigor-tuta zaude besagainean jotzera. Hori hala, sorbalda garatuz joaten da, eta azkene-rako, behartua dirudien postura natural bihurtzen da.

Behin frontoirako apustua eginda, zerekin egiten zenuen amets?

Kubako selekzioan parte hartzearekin, nire herria ordezkatzearekin. Behin hori lortutakoan, sekulako prestakuntza eginarazi zidaten. Zorakeria bat. Partidak 90 tantora jokatzen genituen, eta behin partida bukatuta, atletismo pistari hamabost itzuli emanarazten zizkiguten eguzki galdatan. Ezin duzu imajinatu zer zen hura. Pentsa, 2002ko Iruñeko Munduko Txapelketan hamalau egunean hamabi partida jokatu nituen, eta denek uste zuten dopatuta nengoela. Ba ez, prestakuntza titanikoaren fruitua baizik ez zen izan. Munduko errespetu guztia merezi duten entrenatzaileak daukagu, oso-oso onak dira.


Iruñeko Munduko Txapelketan egin zinen ezagun, baina noiz ikusi zenuen gora iritsi zintezkeela?

1998an jokatu nuen nazioarteko nire lehen lehiaketa. Laugarren baizik ez nintzen izan,

“Ez dut ahantzi nahi, hurrengo egunean entrenamendu bukaezin bat ukan arren, baso bat ur afalduta oheratzen nintzela. Hori Europara datozen kubatar askori ahaztu egiten zaie. Niri ez”

Nortasun agiria

Agusti Waltary Alonso Habanan sortu zen 1980ko apirilaren 5ean. Beisboleko batea albo batera utzirik, pilotari eskaini dizkio bere ordurik onenak, eta pilotak eman dizkio bere unerik gloriosoenak. Ez zen alferrik izan 2002ko Iruñeko Munduko Txapelketan txapeldun banaka eta txapeldunorde binaka. 2006an trinketeko enpresa garrantzitsuenarekin fitxatu eta 2007an binakako txapeldun izan zen, eta buruz-buruko txapel preziatua jantzi du aurrean. Landetako Tarnos-en bizi da egun.



Agusti Waltary

Agusti Waltary

baina oso esperientzia ona izan zen, besteen mailan aritzeko gaitasuna nuela ikusi nuela. Kubara bueltan, are gogorrago entrenatu nuen, eta 2002an heldu zitzaidan aukera. Lehenik, Pariseko Opena lehiatzea egokitu zitzaigun, Estatu Batuek uko egin ziotelako. Harrigarria izan zen hura. Beste denak eskursioan eramaten zituzten, eta gu Paris-ko bi izarreko hotel batean sartuta eduki gintuzten. Baina frontoian, sudurra onenen artean sartzen hasi nintzen, eta horrek Iruñeko Munduko Txapelketarako konfiantza handia eman zidan. Konfiantza horri esker urrezko domina eraman nuen banaka, eta zilarrezkoa binaka. Horrek afizionatuekin jokatzeko parada eman zidan, baina emaitzek garbi erakusten zuten ez neukala kontrariorik. Maila horretan estankatuta geratzeko beldurrez, profesionalekin probatu nahi nuela esan nien nire entrenatzaileei. Gaur arte.

Pariskoa bezalako gutxiesteek irabazteko gosea areagotu zizuten?

Kuban ere txapeldunak zeudela erakutsi nahi nion munduari. Kontuan hartu behar gintuztela frogatu nahi nien. Besterik ez. Nazioarteko lehiaketan atarian, nire entrenatzaileak beti esaten zidan ez neukala ezer galtzeko. Banekien frantsesek irabazten bazidaten ez zutela beste munduko ezer lortuko, baina nik irabazten banien sekulako problema izango zutela. Filosofia horrek asko laguntzen ninduen, eta bertatik edaten nuen egunero. Teorian ni baino hobea zen bati irabazten niolarik, are indartsuagoa sentitzen nintzen, eta buruz sendo bazaude...

Pentsatu izan duzu besteek jostatzeko jokatzen zuten bitartean zuk jateko jokatzen zenuela?

Gaur egun, jateko jokatzen dut. Nire familiak eta lagundu ditzakedanak jan ahal izan dezaten. Luxurik ez dagoen herri batetik nator eta ez dut luxuak ordaindu ahal izateko jokatzen. Nire buru-gogoez Kuban jarraitzen dute. Europara datozen kubatar batzuek beraien familia eta jatorria ahanzen dituzte. Beste batzuek berriz, argazkiak ateratzen dizkiete beraien etxetzarrei edo frigorifiko bete-betei eta Kubara bidaltzen dituzte. Ez dira konturatzen horrek egin dezakeen minaz. Nik bi urte daramatzat hemen eta bidali ditudan argazki eta bideoetan ez dut nire etxeko ezer erakutsi. Ez zait autosufizientzia modu hori gustatzen. Frontoian bai, entrenamenduetan ere onena izan nahi dut, baina hortik kanpora...

“Gurean dena da alegrantzia, ausardia eta berotasuna. Kontserbadorea bazara jan egiten zaituzte. Kurioso da, baina Komandantea izango da kontserbadoreena”

Trinketetik ezker-paretera

“Bi joko arras desberdin dira. Trinketeak gehiago du ikuskizunetik, frontoian gehiagotan eman behar zaio pilotari, eta niri ez zait pilotatzea gustatzen. Besoa asko nekatzen zitzaidan, eta ezin izaten nituen hango entrenamenduak eta hemengo partidak topera egin. Esperientzia ederra izan zen, pertsonalki garrantz samarra gertatu zitzaidan arren”.

Hemen, frontoitik kanpora 20 euro ia gutxietsi egiten dira, eta Kuban...

Badakizu zenbatekoa den soldata arrunta Kuban? Hamar euro hilabetean. Kubatar bat oso-osoa ongi bizi da 50 euroekin. Etxekoei dirua bidaltzen diedanean beti esaten diet aurreztu behar dutela. Oso erraza baita burua galtzea. Ni munduan barrena bakarrik ibili naiz eta lortu dudana ez dit inork oparitu. Gainditu dudan oztopo bakoitzak sendotu nau, hiltzen ez zaituenak indartsuago egiten zaituelako. Baina ez dut ahantzi nahi nondik natorren, eta nagoen tokiraino iristeko zer pasa behar izan dudana. Ez dut ahantzi

nahi, hurrengo egunean entrenamendu bukaezin bat ukan arren, baso bat ur afalduta oheratzen nintzela. Hori Europara datozen kubatar askori ahaztu egiten zaie. Niri ez. Gure arteko aldea oso sinplea da. Nik jainkoan sinesten dut eta eurak jainkoa direla sinesten dute.

Horrek laguntzen dizu gurean kirolari ematen zaion hil ala biziko tratamendua erlatibizatzen?

Nire kasua ezberdina da. Badakit publikoak partidaro nire onena ematea eskatzen didala. Gehiengoak ulertzen du ez dela beti erraza, baina bada ezer barkatzen ez didan jende multzo bat. Ez da ahantzi behar atzerritarra naizela, beste herrialde batetik natorrela, hemen ia-ia bakarrik nagoela, eta Kuban dagoen arren, nire familiaren gorabeherek eragiten didatela. Esaterako gure aita diabetikoa da, eta osasun arazoak baldin baditu, ezinezkoa zait hori ahaztuta kantzaratzea. Partida bat baino askoz garrantzitsuagoa da hori niretzat. Badakit nor naizen, zenbat jokatu dezakedan, eta hortik aurrerakoak nire kolorako gordetzen ditut.

Aztertua sentitzen zara?

Hitz batzuek min ematen dute. Partida bat galdutakoan, ahobero batek nire maila eman ez dudala esaten didanean aurpegia txiki-txiki egiteko gogoa sartzen zait. Horretan kubatar oso odol-beroak gara, eta galtzen dugunean ezin zaigu ezer esan. Hemen gauzak lasai hartu behar direla ikasi dut, halakoei paso eman behar zaiela, eta hurrengoan ahal bezain ongi jokatzea dela jende hori isiltzeko modurik eraginkorrena. Ezin diet bekaizti horiei kasu egin. Kasu egingo banie nire buruaz beste egin behar-ko nuke. Gainera, ez da ahantzi behar nire





familiari laguntzeko nagoela hemen, ez arazoak edukitzeko.

Horregatik egin zenuen Kubatik ihes 2004an?

Zure familia lagundu dezakeen haurride bakarra zarela ikusten duzunean ez duzu bi aldiz pentsatzen. Nik Kuban dena neukan, baina nire familiak ez. Horregatik iruditu zitzaidan hobea nik hemen denetik pixka bat ukatea, eta nire familiak deusen faltarik ez izatea. Kuba atzean utzi nuenean banekien bost urtez ezingo nintzela bertara bueltatu. Baina denbora aurrera doa, eta hurrengo urtea noiz helduko zain nago, nire familia berriz besarkatu ahal izateko.

Euskal Herrian Kubako oso irudi idealizatua dugu. Nolakoa da benetan? Zer aurki genezake bertan?

Kuban ere, leku guztietan bezala, denetik dago. Baina kubatarrek oso bereziak gara. Oso sentiberak, oso alaiak. Gose izanagatik, sekulako poztasunarekin esnatzen da jendea. Jateko ezer ez baldin baduzu, auzokoaren aldaba jo, eta daukan apurra emango

Pelotari kubatarrek

“Kuban hemen jokatzeko talentua duen jendea dago. Hemen gurekin jokatzeko ari diren zenbait baino hobeak dira. Pena da Kuban paperekin hainbeste arazo egotea, bestela... Tira, espero dut nik egindako bideak kubatar gazteentzako atek irekitzea, eta denborarekin, gauza horiek errazten joatea”.

AZURMENDI JATETXEA
LEGINA AUZOA
LARRABETZU

944558866
www.azurmendi.biz

AZKEN HITZA

Familia

“Sei senideko familia ginen joan nintzeanean eta orain zazpi gara. Urte eta erdiko anaia txiki bat daukat, argazkietatik baizik ezagutzen ez dudana. Umeekin txoratu egiten naiz eta aita izateko desiatzen nago. Trinketeetako nire ibilbide profesionala bukatzean ere, seme-alabak zaintzen irudikatzen dut nire burua. Ezin duzu imajinatu zer suposatzen duen familiak niretzat”.

dizu. Hori hemen pentsaezina da. Alaitasun eta elkar laguntzeko dugun gaitasunak jende asko harritu eta erakartzen du. Ez gaitezen engaina, bada Kubara emakumeengatik joaten den jendea, baina askoz gehiago da gure herria nolakoa den ikustera gerturatzen dena. Dena den, Kuban zer dagoen jakiteko norbere begiz ikusi behar da, norbere bihotzez bizi.

Bizitzeko modu alai horrek eragiten du zuen jokatzeke moduan?

Jakina. Pozik entrenatzen dugu, entrenatu ostean zer jango dugun pentsatu gabe. Jendeak ez dauka inolako estimulurik baina oso motibatuta entrenatzen da. Harrigarria da, herri azpi garatu bat izanik nola daukagun munduko kirolari harrobi onenetakoa. Gurean dena da alegrantzia, ausardia eta berotasuna. Kontserbadorea bazara jan egiten zaituzte. Kurioso da baina Komandantea izango da kontserbadoreena. Nire entrenatzaileak beti esaten zuen diskotekara sartzan nintzen bezala irteten nintzela kantxara. Egia da, bietera dibertitzera joaten nintzen. Horregatik gustatzen zait frontoia bete-betea dagoenean. Horregatik hazten naiz partida garrantzitsuetan. Horregatik hogeita hemeretzi gauden bakoitzean arriskatuko dut tantoa amaitzeko. Izaeraren parte da, eta ni naizen bezalakoa naiz kantxan zein bizitzan.

“Beisbolean, jatorri pobreako bazara traba asko jartzen dizkizute, eta onenak baino hobeia izan behar duzu, bestela jai daukazu”



Komandantea aipatu duzu...

Ez dut sekula haren aurkako adierazpenik egin, ez naiz sekula politikan nahastu. Politika eta kirola bi mundu dira niretzat. Nik politika Komandanteari utzi diot, bera baita horretan jakituna, eta ni nire herriarentzako dominak irabaztera dedikatu naiz. Ez daukat Fidelengatik gaizki jarduteko motiborik. Nik ez nuen Kubatik arrazoi politikoengatik alde egin, nire familia lagundu nahi nuelako baizik. Miamitik deitu izan didate Komandantearen aurka mintza nendin, baina zergatik? Ez da ahantzi behar, Komandanteari esker, Kuban gauza on asko daudela. Herrialde garatuetan ez bezala ez dago analfabetorik, hezkuntza eta osasun arloak doakoak dira... Nire herria asko maite dut, eta berari esker iritsi naiz iritsi naizen tokira. ■